

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



**El Club
Bilderberg**
Cristina Martin

BOOKS4POCKET
310 orrialde
7 euro

Munduaren jabeen isileko elkarte

Cristina Martin kazetariaren ikerlana dugu *El Club Bilderberg. Los amos del mundo*. Berrogeita hamairu urte omen daramatza jada mundu osoa zuzentzeko asmoa duen isileko elkarte horrek martxan. Partaideak? Besteak beste, David Rockefeller, Henry Kissinger eta enparauak, planeta honetako banketxerik garrantzitsuenak, gobernuetako lehendakariak eta ministroak, errege-erreginak, munduko moneta, polizia eta armen gorabeheraz arduratzen diren erakunde ospetsuenen ordezkariak, komunikabide garrantzitsuenetako buruak eta etorkizunean gobernuetako aginte maila gorena lortu nahi duten politikariak. Helburua? Mundua gobernatzea, horrek milioika lagun heriotza badakar ere. ■

te maila gorena lortu nahi duten politikariak. Helburua? Mundua gobernatzea, horrek milioika lagun heriotza badakar ere. ■



**Naturaren indarrak
(Elektromagnetismoa
eta Grabitazioa)**

Sarda Taldea

GAIAK
294 orrialde / 21 euro

Galaxietatik atomoetaraino ikertzen duen jakintza

Anaxagorastik Newton arte, planeten higiduraz eta zeruko gorputzen erorketa gobernatzen duten kausen inguruko usteak azaltzeaz gainera, naturaren indarrekin zerikusia daukan arlo oro biltzen ahalegindu da Sarda Taldea *Naturaren indarrak (Elektromagnetismoa eta Grabitazioa)* izeneko liburuan. Horretarako agerian uzten dituzte Isaac Newton, James Clerk Maxwell edota Albert Einstein bezalako ikerlarien bizitzaren nondik norakoak, kezka nagusiak, planteamendu zientifiko eta filosofikoak eta bakoitzak zegokion garaian bilatzen zuena ikusteko izandako dohaina. Indar kontzeptuaren garrantzia, grabitazio unibertsalaren legea, kurbadura duten geometria bitxiak, irrati-galaxiak... ■

Eguzkia eta Ilargia haserretuta

Etxeko gaztetxoenei zuzendua dago Maite Gaztelumendik marraztu eta Miriam Mendozak idatzitako *Jaxinto eta giltza erraldoia*. Istorioan, Eguzkia eta Ilargiaren arteko haserrearen ondorioak agertzen dira. Lagun on askoak ziren biak, baina halako batean elkarri mokoka hasi ziren. Orduan, bata irten orduko bestea desagertzen hasi zen, eta ahaztu egin zitzairen lagun minak izan zirela ere. Zeruian nork agindu, horixe zuten borroka, eta biak aldi berean bazter guztiak argitzen zituztenez, inork ezin zuen jakin noiz zen gaua eta noiz eguna. Mundua erotu egin zen, jakina, eta liskarra amaitzeko eskatu zieten. Azkenean erabaki bat hartu zuten: munduaren alde batean Ilargiak aginduko zuen; bestean, Eguzkiak. Aralarko artzain bati zor diogu hori eragozteko burutapena. ■




**Jaxinto eta
giltza erraldoia**

**Miriam Mendoza,
Maite
Gaztelumendi**

GERO
28 orrialde / 6,15 euro

Iraganak geroan duen itzala

Bilbotarra dugu etorkizun hurbi-lean kokatutako *Marca de fuego* nobela beltzaren egilea. 2035. urtean girotu du istorioa. Hainbat hondamen jasan eta gero jendea matxinatu egin zen eta munduko lurralderik oparoenak aberatsen esku geratu. Al-Andalus eta Euskadiko Errepublikak bezalako lurraldeek, burujabe, hutsetik hasi behar izan zuten. Adi egon behar dute herrialde horiek, Marcas Globales izenarekin ezagutzen den aberatsen gobernuaren erasoan zain. Horretaz arduratzen diren artean dago Eneko Amboto, garai batean erakunde militar bateko partaide izana, eta orain Al-Andaluseko biztanlegoa defendatzen duena. Hilketa gogor batzuei eta Al-Andalusekoei ura kentzeko erasoak prestatzen ari diren aberatsei egin beharko die aurre. Eta ikerketek Erdi Aroko zaldun-ordena batengana daramate. ■



**Marca de
fuego**

Daniel Bilbao
HUERGA&FIERRO

412 orrialde
20 euro



Gurs. El campo vasco

Josu Chueca

TXALAPARTA

284 orrialde

17 euro

Euskal herritarrak preso egondako esparrua

Asko hitz egin da Dachau, Auschwitz eta antzeko kontzentrazio esparruez, baina ez hala 1936ko Gerran garaitua izan zen euskal jendeak Francoren tropetatik ihesi Frantziara joan eta han "harrera" eman zien Gurs-eko kontzentrazio esparruaz. Hori da Josu Chueca historialariak *Gurs. El campo vasco* lanean arakatu duen gaia. Iheslariak atzerritar "gorriak" izaki, susmagarriak ziren Frantziako eskuinarentzat eta hari men egiten zioten frantziar gehienentzat. Gursen preso sartu, eta akabo arazoa. Hara eraman zituzten 2.745 euskal herritar. Bigarren Mundu Gerra amaitzean

jakin zen Gursen ondorioa: 60.000 pertsona pasa zen handik, eta askok hantxe aurkitu zuen heriotza. ■

Bi ikaskide gazteren arteko mezu trukaketa kilikagarria

Institutuko ikastaroa hasi berri, ekiten dio neska batek mezuak bidaltzeari gustuko duen bere ikasturteko mutil bati. Maite duela, eta asmatzeko nor den, eskatzen dio beste bati bizkar-zorroan sartu dion izenik gabeko gutunean. Eta mutila, jakinminez, prestatzen da erantzutera eta mezua neskak esandako lekuan uztera. Bien arteko jokoa da, eta biak dira horren jakitun. Haatik, mezu trukaketa horretan inoiz inorekin hitz egin duten baino argiago hitz egingo dute elkarrekin, eta horrek izango ditu bere ondorioak. ■

Asmatu nor naizen

B. Masine, R. Piumini

IBAIZABAL

102 orrialde / 11,20 euro



AINGERU EPALTZA

«Nobela historikoak orainaz gogoeta egiteko balio dit»

Zein asmorekin idatzi duzu *Mailuaren odola*?

Garai berezi baten argi-ilunak erakustea izan da nire helburuetariko bat, eta horretarako egiazko historiaren datuak erabiltzera beharturik nengoen. Benetan izan ziren pertsonaiak ere erabiltzen ditut, alegia, errege-erreginak, nobleak, gure literaturaren pertsonaia ezagunak... Alabaina, protagonista nagusia fikziozkoa da. Eta neurri handi batean Joanes Mailuren joan-etorriek eta abenturek osatzen dute liburua.

Denbora aske eraman al dizu eleberria egiteak?

Lau urte inguru ibili naiz liburu honekin. Dokumentazio lanak denbora luzea kendu dit eta izerdi asko bota arazi. Idazteak ere berea eraman du, ez bainuen tonu eta hizkera egokia atzematen. Nolanahi ere, XVI eta XVII. mendeak ikaragarri interesgarriak iruditzen zaizkit. Nolabait ere, gure oraina orduan hasi zen finkatzen. Bada, gainera, garai horiei edo lehenagokoei, nostalgiaz begiratzen die-nik, une haietan zerbait galdu genuelakoan. Hori akuilu gehigarria izan da niretzat.

Nobela historikoak aldekoak eta aurkakoak ditu. Zer harrera espero duzu?

Nobela historikoak denbora pasa hutsarekin edo literatura komertzialenarekin lotzen dira maiz. Orainean ezinezko gertatuko liratekeen pertsonaiak eta egoerak aurkitzen ditudalako interesatzen zait niri iragana, baina baita orainaz gogoeta egiteko balio didalako ere. *Mailuaren odol* abenturak maite dituenak izanen du non ase bere gogoia. Gogoeta maite duenak ere bai. Harrera? Auskalo. Euskal irakurlea misterioa da euskal idazleentzat.



ALBERTO ELOSTEIGI

Erresuma eta Fedea trilogiaren aurrenekoa

Historiazalea da Aingeru Epaltza eta betidanik harrobi interesgarria iruditu zaio iragana literaturan erabiltzeko. Baina XVI. eta XVII. mendeetako tarte hori da iragan aldiko gertaera gogoengarrietatik ikaragarri interesgarritzat jotzen duena. Hara zergatik erabaki duen *Erresuma eta Fedea* izenburua duen trilogia osatzea. *Mailuaren odola*, trilogia horren aurreneko liburua da, eta Nafarroako erresumaren gainbehera azaltzen du, egiazko pertsonaiekin zein gertakizun historikoekin irakurleari gerturatzeke baliagarri zaizkion fikziozko beste batzuez. Azken hauetarikoa da Joanes Mailu, *Mailuaren odol* protagonista nagusia. Mende erdia bete duenean agertzen da nobelaren, Henrike III. erregearen hilketaren ondorioz pil-pilean dagoen Pariseko ateetan, ihes egiteko zorian. Han, baina, Sorbonako uniber-

egileari galdezka



Mailuaren odola

Aingeru Epaltza

ELKAR

324 orrialde

19,20 euro

tsitatea utzi eta Inkisizioaz libre dagoen Sarara itzultzekotan den Axularrarekin egingo du topo. Ez du begi onez ikusiko higanot itxurako gizon zarpaila Sarako erretoreak; baina haren zalditik zakuto bat erortzen denean, berak jasoko du, beranduxeago barruan zer dagoen begiratzeko asmoz. Eta hantxe aurkituko du, euskaraz idatzirik, iragan mendeko bere herriaren historia kitzikariena. ■